

# ikastola

DURANGOKO  
AZOKA

nobedadeak



KONKISTAREN  
HISTORIA KOMIKIAN

**ERRESUMAREN DEFENTSAN**





...surfa, piraguismoa, ikastaroak, kontzertuak,  
hizkuntzak, lehiaketak, kirolak, campusak...

# Udan gelditu barik



...plan pila uda honetarako  
eta zozketak,  
hizkuntza-ikastaroetan,  
saskibalo-i-campusetan,  
mendi-ibilaldietan... begiratu  
hemen: [www.bbk.es](http://www.bbk.es)

Eta **Athletic-eko  
motxila hau opari\***  
Gaztedi Plana orain  
irekitzen baduzu.

**BBK GAZTEDI  
PLANA**



Hemen  
gaitu-  
zu

**bbk<sup>2</sup>**



\*Sustapena indarrean egongo da,  
gutxienez 300€ko saldoa duen kontua  
irekitzen baduzu. Dagoeneko Gaztedi  
Plana baduzu, gonbidatu lagun bat Plana  
egitera, eta motxila bana eroango duzue.  
Izakinak agortu arte.





- 3 ELKARRIZKETA: JOSU SIERRA
- 8 ERREPORTAJEA: DURANGO AZOKARAKO NOBEDADEAK
- 12 LAUTADA IKASTOLA
- 14 ASTI LEKU IKASTOLA
- 16 AISIALDIKO HEZITZAILAEN IKASTAROAK LAZKAON ETA TOLOSAN
- 18 LUR EREMU BATEN ZAIN HENDAIAN.
- 20 IKASTURTEA FESTA BATEKIN HASI ZUTEN BERAN.
- 22 IKASTOLEN JAIK: MILA ESKER BESTE BEHIN

EDITATZAILA:  
EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK  
Ikastolen Etxea,  
Errotazar bidea, 124  
20018 DONOSTIA  
Tel.: 606 33 41 45

KOORDINATZAILA:  
Zurite Mendizabal  
aldizkaria@elhii.ikastola.net

ERREDAKZIOA:  
Joxean Agirre eta  
Eva Domingo

EUSKARA ZUZENTZAILA:  
Imanol Artola

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Txema Garzia Urbina

INPRIMATZAILA:  
GERTU Inprimategia.  
Oñati. Tel.: 943 78 33 09

AZAROA 2011

# 195

IKASTOLA ALDIZKARIA  www.ikastola.net

## ELKARRIZKETA



# JOSU SIERRA

ZORTZI URTEZ ISEI-IVEIKO ZUZENDARIA IZANDAKOA

“Maila sozio-ekonomiko baxuagokoak izanik,  
guk baino emaitza hobekak lortzen dituzte”







—  
Josu Sierra Orrandia psikologoa da. Oso ondo ezagutzen ditu ikastolak, gurean langile eta guraso izan da, Bizkaiko Ikastolen Elkartean ere bai garai batean. Hezkuntza Administrazioa ere ondo ezagutzen du. Glotodidaktikaren eta Hezkuntza Programen Ebaluazioaren arloan lan egin izan du. Zortzi urtez izan da ISEI-IVEIko (Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea) zuzendaria.

“ESKOLAK BAKARRIK EZIN DU. BESTELAKO NEURRIAK BEHAR DIRA. IKASTETXE INGELESEAN, AURRERA JARRAITZEKO INGALATERRAN EDO IRLANDAN EGONALDIAK EGITERA DERRIGORTZEN DITUZTE. MIRARIRIK EZ DAGO ETA GURASOEI AZALDU EGIN BEHAR ZAIE HORI”.

**E**uskal gizartearen maila sozio-ekonomikoa eta kulturala Europako onenetakoa da. Gure eskola emaitzak ez ordea. Zu ISEIko zuzendaria izan zinen aurreko legealdian. Zerk egiten du huts? Hezkuntza alorrean zentratuz, euskal ikasleen maila sozio-ekonomikoa, ELGA (OCDE)-ko herrialdeekin konparatuta adibidez, batez bestekoan dago PISA azterlanen arabera. Gure emaitzak ere kompetentzietan, azterlan berean, batez bestekoan artean daude. Beraz... nahikoa ongi, ezta? Arazoa zera da: gure inguruko komunitate espainiarrek adibidez, maila sozioekonomiko baxuagoa izanda, guk baino emaitza hobekiago lortzen dituztela. Gure auzokide horiek ikasleko gutxiago gastatuz, guk baino emaitza hobekiago lortzen dituzte. Eta konparazio horiek ezin dira saihestu, mundu guztiak ikusten ditu. Nik uste dut efizientzia arazo bat dugula. Gastatzen dugun, gastatzen genuena bederen, dirutza kontuan hartuta, gure emaitza erdi mailakoa besterik ez da, kaskar samarra.

*Nazioarteko ebaluazioaren ondorioz, zer nolako hutsuneak antzematen dira gure ikasleriaren ikas-irakas prozesuetan?* ISEIra heldu bezain pronto sartu ginen PISA eta TIMSSen, garrantzitsua zelako sistemari buruzko informazio zehatza izatea. Izugarri ikasi dugu nazioarteko ebaluaziotik sistema bezala. Alde batetik, badakigu gure emaitzak erdi mailakoak direla oro har; konpetentzia batzuetan, zientzia arloan, arazo gehiago dugu tradizionalki besteetan baino. Hala ere, sistema gisa baditugu gure ezaugarriak: gure sistema nahikoa ona da maila sozioekonomiko baxueneko ikasleekin. Ikasle gutxi ditugu konparatiboki errendimendu mailarik baxuetan. Goi mailako errendimendurik, alabaina, apenas ekoizten dugu. Gure errendimendu bikainekoak oso pobreak dira ELGArekin konparatuz. Maila sozioekonomiko altuko gure ikasle eta ikastetxeak dira gure arazo nagusia nire iritziz. ELGAren batezbesteko maila sozioekonomikotik gora dauden gure ikastetxeen emaitzak ez du maila ematen. Gero, arazo gehiago daude: ikasturteen errepikapena adibidez, subjektiboa eta inefikaza da, ikastetxe publikoen autonomia..., eta abar.

*Zein egokitzapen egin beharko genuke eskolan maila sozioekonomiko eta kulturalaren neurrira iritsi ahal izateko.* Lehenik eta behin, ebaluazio finagoa egin behar da nazioartekoa baino. Ikastetxez ikastetxe aztertu behar da eta ikasle guztien emaitza ikusi. Baina batez ere, datu horietan oinarriturik, hobekuntza



sustatu behar da, bakoitzak bere ikastetxean eta bere ikasleekin, eta maila sozioekonomiko baxuetan Administrazioaren laguntzaz. Honi ikastetxeen ardura deitzen zaio. Baina aldi berean ikastetxeei askatasuna ere eman behar zaie beraien neurriak har ditzaten. Hori da binomioa: erresponsabilitatea eta askatasuna. Luze joko luke hau guztia esplikatzeak.



▲ *Sarri askotan entzun dizugu ikastetxeen balio erantsia neurtu beharko genukeela. Zer da balio erantsia? Zergatik planteatzen duzu?* Balio erantsia ebaluatzeko sistema “berri” bat da, azken urteotan AEBn eta Erresuma Batuan egiten dena. Baina hemen ez dugu izan ebaluazioaren kultura hezkuntzan. Nik etengabe bultzatu nuen Ebaluazio Diagnostiko objektibo eta unibertsala, eta martxan jarri genuen 2009an. Hobekuntzari begira, tresna oso ona izan daiteke ikastetxe eta Hezkuntza kudeatzaileentzat, baina serioski jokatuta. Laginetan oinarritutako sistemaren ebaluazio bat ez da nahikoa gaur egun hezkuntzan erabakiak hartzeko. Baina Balio Erantsia ebaluatu ahal izateko

**“EUSKO JAURLARTIZAK EZABATU EGIN ZITUEN GUK JARRITAKO HELBURUAK. NORA IRITSI BEHAR DUZUN EZ BADA KIZU, EZINEZKOA DA EBALUATZEA, ETA ZAILA JAKITEA ONDO ALA GAIZKI ARI ZAREN. HIRUELEDUN EREDU-TRANPA HORRETAN BEZALA”.**


gutxienez ikasle guztien hiru ebaluazio jarraian egin behar dira, ikasturte desberdinetan. Balio erantsiaren ebaluazioak ez du errendimendua neurtzen, hazkundea baizik. Errendimendua oso loturik dago maila sozioekonomikoari; hazkundea ez, ordea. Eta batez ere, beste gauza batzuk uzten ditu agerian: zer aportatzen dioten ikasleen hazkundeari ikastetxeek eta irakasleek. Baina gai hori tabua izan daiteke gure artean eta, gainera, teknikoki konplikatu da Balio Erantsia. Beraz, ebaluazio-mota hau irakasleen ebaluazioan sartzen da bete-betean.

*Ikastola taldea ezagutzen duzu. Garapen oso bat ez bada ere, gure ikasleen emaitzak hobetzeko abiabide batzuk zertzelada modura eman al diezazkigukezu?* Lehen aipatu dudana kontuan hartu behar duzue ikastolok. D ereduko ikastetxe kontzertatuaren gehiengoa osatuko duzue seguru asko. D ereduko ikastetxe kontzertatuaren maila sozioekonomikoa PISAn, bigarren altuena da gure sisteman, A kontzertatuaren ostean. Beraz, duzuen problema zera da: zuen emaitza, kasu askotan, ez da ELGAren parekoa ikastetxeen mailan gako diren konpetentzietan. Zuen tentazioa gure

sistema barruko konparazioan geratzea izan daiteke, eta kitto. Baina hori autoengainatzea da. Zer ekarpen egiten dio ikastolak maila sozioekonomiko nahikoa altuko ikasleriari? Ez dakit Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzak ikastetxex-ikastetxe aztertu, eta nola hobetzen dutenari buruzko jarraipena

egiten duzuen ala ez, baina egin beharko zenukete. Neurriei dagokienez, ez dago errezeta bat guztientzat, baina ikas ezazue nazioartetik. Adituek diote, adibidez, ikasleen emaitzen muga beraien irakasleen kalitatea dela. Finlandian, Singapurren, Korean..., izugarritzko garrantzia ematen zaio irakasleen kalitateari. Zein da zuen irizpidea irakasleak hartzerakoan adibidez?

*Hizkuntza politikari dagokionez, zu ISEIko zuzendari zinen garaian egindako ebaluazio batek adierazi zuen D eredua zela, konparazioan, helburuetara gehien hurbiltzen zena. Orain ordez D eta B ereduak parekidetu egin dira euskararen inguruko tituluak direla eta. Zein iritzi duzu horretaz?* Bueno, bizpahiru aldiz salatu dut kontu hau nire blogean eta askori ez zaie gustatzen. Laburtuz, oraingo agintariek ez dituzte B2 eta B1 mailetako ebaluazioak aintzakotzat hartzen. Hor agerian utzi genuen eskolak ez duela bermatzen, ezta D ereduan ere neurri batean, euskara maila duin bat derrigorrezko irakaskuntza amaitzean. Hori ez zaie interesatzen. Horri soluzioa eman ordez, areagotu egin dute euskararen ahuleziaren arazoa, horrelako zerbait pentsatuz: “eskolak ez du maila hori bermatzen, baina berdin zaigu, eta



“BADA KIZU INPOPULARRA DELA ZERTIFIKAZIOAK ESKATZEA, BAINA IZAN GAITZEN SERIOAK EUSKAREN ALDE”, DIO JOSU SIERRAK ZORTZI URTEZ ISEI-IVEI ERAKUNDEAREN ZUZENDARIA IZANAK. ISEI-IVEI IRAKAS SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA DA. INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN.



funtzionario izateko ez dugu inolako ahalegin gehigarririk eskatuko: B eta D ereduko guztiak euskara bikain menderatuko balute bezala egingo dugu”.

Galtzaileak, betikoak. Urte gutxitan ikusiko da. Badakit inopularra dela zertifikazioak eskatzea, baina izan gaitzen serioak euskararen alde.

*Hezkuntzan euskararen menderatzea bermatzeko, bide onetik goaz, zure iritzirako? Zer egin beharko litzateke eta ez da egiten ari?* Ikastoletan gutxienez

helburu argiak dituzue irakasten dituzuen hizkuntzetarako, nahiz eta hori bakarrik nahikoa ez izan. Hori gutxienekoa da, baina zoritxarrez Eusko Jaurlaritzak ezabatu egin zituen guk jarritako helburuak. Nora iritsi behar duzun ez badakizu, ezinezkoa da ebaluatzea, eta zaila jakitea ondo ala gaizki ari zaren. Hirueledun eredu-tranpa horretan bezala. Baina, ez ditzagun geure buruak engaina: euskalduntzea ez da ikastolaren egitekoa soilik. Ez da berdin, jatorrizko erdaldunei buruz ari naiz, Azpeitian edo Ondarroan bermatzea euskara maila hori, edo Portugalete eta Lapueblan. Ikasle horiek beraien denboraren %15 pasatzen dute bizpahiru euskaldunekin ikastolan. Horrekin bakarrik, dakigunez, ezin da ezta ezagutza bera ere bermatu. Eskolak bakarrik ezin du. Bestelako neurriak behar dira. Ikastetxe ingelesean, aurrera jarraitzeko Ingalaterran edo Irlandan egonaldiak egitera derrigortzen dituzte. Miraririk ez dago eta gurasoei azaldu egin behar zaie hori, egia esan behar zaie. •

## CÓMO MEJORAR LOS RESULTADOS

Josu Sierra, quien fuera director de ESEI-IVEI durante la anterior legislatura y, por lo tanto, experto en evaluación, recuerda que otras comunidades autónomas con menor nivel socio-económico que la vasca obtienen mejores resultados, aunque matiza esta afirmación. Aboga por evaluar también el “valor añadido” de los centros, un concepto que hace referencia a lo que cada centro aporta al crecimiento del alumno y que ya se mide en países como los EEUU o el Reino Unido. Las ikastolas podrían tener la tentación de compararse con los resultados de otras redes y eso sería, según Sierra, una forma de autoengaño. Analiza también el problema del nivel de conocimiento del euskara de los alumnos en nuestro sistema de enseñanza y añade que los responsables de la administración actual han optado por cerrar los ojos ante el problema y hacen como si los modelos D y el B aseguraran el umbral de suficiencia. “Al menos las ikastolas tienen claro el tratamiento de las lenguas, lo que es un punto de partida”, dice y critica la entelequia del trilingüismo que promulga la administración actual.

## COMMENT AMÉLIORER LES RÉSULTATS

Josu Sierra, ancien directeur de ESEI-IVEI et à ce titre expert en évaluations, rappelle que les communautés autonomes ayant un meilleur niveau socio-économique que celui la CAB obtiennent de meilleurs résultats, même s'il nuance le propos. Il plaide pour également évaluer la “valeur ajoutée” des centres, un concept faisant référence à ce que chaque centre apporte à l'élève et qui se mesure déjà aux Etats-Unis et au Royaume-Uni. Comparer les résultats des ikastola à ceux des autres réseaux serait trompeur selon Sierra. Il analyse également le niveau de maîtrise de l'euskara chez les élèves dans notre système et ajoute que les responsables actuels de la CAB ferment les yeux sur le problème et font comme si les modèles D et B assuraient un seuil de suffisance. “Au moins les ikastola savent quel traitement donner aux langues, ce qui est un point de départ”. Il critique également l'entéléchie du trilinguisme promue par l'Administration actuelle.



[www.elhuyar.org/edizioak](http://www.elhuyar.org/edizioak)



### ESPERIMENTATU, SAIATU, OHARTU...

Gazteentzako zientzia-esperimentu erakargarri, ikusgarri eta egingarrien bilduma

9-14 urte

### ZIENTZIA GUZTIZ ARDURAGABEA!

Totally Irresponsible Science liburuaren euskarazko itzulpena.

Egilea: Sean Connolly



### BIZI EZAZU ZIENTZIA-ABENTURA

Gazteentzako zientzia-narraziozko liburuak, zientziaren eta literaturaren arteko zubi

12-16 urte

### PLATONEN URMAELA. Lapurtutako giltzaren bila

Plato's Pond liburuaren euskarazko itzulpena.

Egilea: Fred Andrews





# AZ KAKO

## nobedadeak



## “Animalien alfabetoa” eta “Lehenengo ordenagailua”

### Hitz egiten duten jostailu interaktiboak

**B**eti esan ohi da umeek berehalakoan ikasten dutela ordenagailua erabiltzen, eta egia da. Ikastolen Elkarteko Jokogintza taldeak osagarri elektronikoak dituzten bi jostailu aurkeztuko ditu Durangon eta biak teklatuarekin erabiltzen direnak dira.

“Animalien alfabetoa”-k jolasteko modu ezberdinak eskaintzen ditu.

“Alfabetoko letra bakoitzak eta zenbaki bakoitzak bere audioa dauka eta jolas egiteko zortzi modu eskaintzen ditu jolasak: letren izenak,

hitzak, esaldiak, animalien soinuak, zenbakiak, euskal kantuak, musika-teklatura eta, azkenik, galdera-jolasa”, esan zuen Nerea Arregik, Jokogintza saileko arduradunak.

LETRAK jolasteko eran, letra bakoitzaren izena entzuten da. HITZAK jolasteko eran, berriz, ‘A’ tekla sakatuta “arraina” hitza entzuten da eta animalia honek uretan mugitzean ateratzen duen soinua. ‘B’ tekla sakatuta “behia” entzuten da, eta egiten duen marrua ere bai. ESALDIAK eran, ‘E’ letrari sakatzen badiogu,

elefanteak ‘belarri handia naiz ni’ esango du, edo arrainak ‘uretan pozik nabil ni’, edo behiak ‘esnea ematen dut nik’.

“Esplorazioaren eta interakzioaren bidez haurra oinarritzko konpetentziak garatzen joango da. Oinarritzko maila batean, informazioa interpretatuko du (Pentsatzen eta ikasten ikasi), ahozko hizkuntzan Komunikatzen ikasiko du, helduarekin edo kide batekin jolasten duenean Elkarrekin bizitzen ikasiko du. Bakarrik jolasten duenean autonomia garatuz joango da, hau da, Norbera

izaten ikasiko du eta, aldi berean, Egiten eta ekiten ere arituko da”, erantsi zuen Nerea.

Alfabetoaz gainera, zenbakiak ere badauzka, eta zenbakiei lotuta hamar euskal kanta ezagun entzun daitezke. Zenbakien teklatuak ere aukera ezberdinak eskaintzen ditu. Horietako bat musika eskalarena da. Galdera ikurraren tekla sakatzen badugu, azkenik, audioak galdera bat egiten du eta umeak erantzun egokia aurkitu behar du.

Beste gauza askoren artean jokoak eskaintzen

dituen hamar euskal kantaren hitzak eta musika idatzia ere bertan ageri dira. “Maitia non zira”, “Haurtxo polita”, “Aita Jainkoak egin banindu”, “Maritxu nora zoaz”, “Uso zuria”, “Bat, bi, hiru, lau”, “Andre Madalen”, “Aldapeko”, “Ixil-ixilik dago” eta “Din dan boleran” dira agertzen diren kontak.

Durangon aurkeztuko duten bigarren produktuari “Lehenengo ordenagailua” deitu diote, eta hemen ere animaliak dira protagonista. 3-5 urteko umeentzako jostailua da. Hogeita bat



# DURANGON aurkeztuko diren lau produktu gomendatzen dizkizugu

Diruari begiratzeko moduko garaiak dira eta guk Ikastolen Elkartek kaleratu dituen lau produktu gomendatuko dizkizugu: haur txikiak badituzu, “Lehen ordenagailua” eta “Animalien alfabetoa”; zure seme-alabak gazteak badira, Iban Zaldua eta Julen Ribasek egindako “Azken garaipena” komikia eta, gazte nahiz helduentzako gomendagarria den “1512. Nafarroa amets urratua” komikia.



orriko koaderno eta euskarri elektronikoak osatzen dute jostailua. Haurrak atzamarrez markatu behar du planteatzen zion jardueraren erantzuna eta, erantzuna zuzena bada, asmatu egin duela adieraziko dio ahots batek; okerra bada, beste saiakera bat egitera animatuko du. Batzuetan irudiak lotu beharko ditu, beste batzuetan animaliak taldeka sailkatu beren bizilekuaren arabera, beste batzuetan, berriz, gauez eta egunez ibiltzen diren

animaliak berezi beharko ditu edo aztarnak zein animaliarenek diren asmatu, arrautzetan ala emearen sabelean garatzen diren esan, hegan, oinez ala igeri egiten duten, non bizi diren, nola elikatzen diren... “Oso erabilera errazekoa da eta, aurrekoak bezalaxe, oinarrizko kompetentzia guztiak garatzen laguntzen du. Honez gain, Ingurunearen ezaguera curriculum arloarekin lotzen da, natura ezagutzen hastearekin”, esan zuen Nereak.●

NEREA ARREGI ALURTEN DURANGORA ERAMANGO DIREN BI JOSTAILUAK ESKUETAN DITUELA.

## Xabiroiren “Azken garaipena” Naziek irabazi izan balute

**G**enero beltza da, baina historia-fikzioa ere bai aldi berean. Iban Zalduek naziak garaile atera ziren balizko Germania batera eramaten gaitu. Sigrid Frisch detektibearen bidez historia beste modu batera gerta zitekeela erakutsiko digu eta bidenabar gure historia ere bestelakoa izan daitekeela.

**Dani Fanok**, “Xabiroi” komikiaren arduradunak, oso gogokoa du istorio hau eta harro aurkeztu dizkigu Durangora eramango duten bildumari buruzko xehetasunak. “*Iban Zaldua komikizale amorratua da txikitandik eta oso ondo menderatzen du generoaren hizkuntza. Arlo teknikoan Julen Ribas marrazkigileak lagundu dio. Oso bikote ona osatu*

*dute. 46 orriko bilduma da, ‘Xabiroi’n atalka atera dena. Gozatu ederra hartzen genuen komikira atal bat bidaltzen ziguten bakoitzean’*, esan zigun. Marrazkigilea Julen Ribas da, arrasatearra. Komiki ikasketak egin zituen Bartzelonan eta Chroniques de Sillage

komiki sailean parte hartu zuen, esate baterako, Jean-David Morvan gidoiariarekin batera. ‘Berria’ko Mantangorri gehigarrian “Fermin eta Xatur” komiki-orria egiten du. “Xabiroi” lauhilabetekaria da, eta bertan atalka argitaratzen diren sailak bildu eta urtean bilduma bat ateratzen dute.●







## ▲ Iban Zaldúa

### “Historiaren ezinbestekotasunaz zalantzak izateko balio dezake”

“Azken garaipena” historia-fikzioa da. Laguntzen al du genero honek historia beste modu batera begiratzeko, garaileen kontakizunaren aurrean kritikoago izaten? Nik baietz esango nuke, baina azken finean hori irakurleak erabaki beharko du. Historiaren ezinbestekotasunaz zalantzak izateko behintzat balio beharko luke: ez dago paturik, ez progresurik, halabeharrez; kondaira mugitzen duten indarrak ez dira inesorableak. Historia, jasotzen dugun historia, beti garaileen historia denez, eta izan zitekeen bakarra bezala kontatzen zaigunez (*pentsa dezagun Espainiaren Historian, adibidez, batzuek Atapuercaren garaitik idatzita balego bezala deskribatzen dutena*), halako ariketak lagungarri izan daitezke, akaso, beste begi batzuekin aztertzeko.

Aurkeztu ezazu Sigrid Frisch, “Azken garaipena”ko detektibe. Zergatik emakumea?

Zergatik ohikoa ez den heroi bat? Zergatik komikizalea? Bueno, niri ez zait iruditzen ohikoa ez den heroi bat: poliziako detektibe bat da, poliziako kriminalekoa, eta nahikoa topikoa da halakoak dibortziazuta eta alkoholizatuta egotea, hala literaturan nola zinema-telebistan. Agian ez da horren ohikoa emakumea izatea, baina halakoak badaude, geroz eta gehiago; edonola ere, emakumea bada, hein batean, nire alabengatik da: haiekin komikiak irakurriz (zalea bainaiz, eta zaletasun hori transmititzen saiatu naitzaie), ohartu naiz ze emakume protagonista gutxi dagoen, eta amorru pixka bat ere ematen zidan horrek. Komikizalea, tira, uste du erantzun dizudala: ni neu ere komikizalea naiz, eta genero-ari auto-omenaldi edo meta-omenaldi bat egin nahi nion.

Konta ieazkiguzu tramari buruzko lerro batzuk. Etorkizun ez oso urrun batean gertatzen da, mundu



ukroniko batean, zeinetan naziek II. Mundu Gerra irabazi baitzuten. Arraza garbiaren paranoia lortzeko, naziek ernalketa artifiziala bultzatu dute, eta hori dela eta jendea zilborrik gabe jaiotzen da. Baina halako batean gorpu zilbordunak

hasten da aurkitzen polizia, eta hori da hain zuzen ere Sigridek ikertu beharko duen misterioa. Eta gauzak hasieran uste duena baino konplikatua goak suertatuko dira, genero beltzari dagokion bezala. Alde horretatik, komikiaren

iturriak argiak dira: detektibearen nobela edo filmak, alde batetik, eta zientzia-fikzio ukronikoa bestetik, Philip K. Dick-en “Gizona gaztelu garaian” edo Harkaitz Canoren “Belarraren ahoa” bezalako liburuen ildotik.

### “Xabiroi”ri Rekalde-Ortzadar komiki lehiaketaren Ohorezko Saria

Noticias taldeko Ortzadar gehigarriak eta Rekalde aretoak antolatu duten lehen komiki lehiaketaren barruan ohorezko saria eman diote “Xabiroi”ri. Lehiaketarekin erakusketa antolatu du aretoak (*azaroaren 8tik urtarrilaren 15era*) eta sarrerako areto txikia Ikastolen Elkarteak ateratzen duen komikiari eskaini diote.

HELBIDEA: Rekalde zuzardia 30, Bilbo.

ORDUTEGIA: Astartetik larunbatera 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:30. Igande eta jai egunetan 10:00 - 14:00.

JULEN RIBAS MARRAZKIGILEA ETA IBAN ZALDUJA KOMIKILARIA “AZKEN GARAIPENA” KOMIKIAREN HAINBAT ZEHAZTASUN EMANEZ, DURANGORA JOAN AURRETIK.

### LLEGA DURANGO CON LAS SORPRESAS

La Feria de Durango aparece ya en el horizonte cargado de novedades. El producto estrella que Ikastolen Elkarteak llevara a la feria es un cómic de casi cien páginas (“1512. Nafarroa amets urratua”) que relata la conquista de Nafarroa. Los protagonistas de la historia son dos hermanos de San Francisco de Xabier, Miguel de Jaso y Azpilicueta y Joan Azpilicueta (quien tomó el apellido materno), que fueron testigos y participes de los acontecimientos. El historiador Joseba Asirón es el autor del

guión y Martín Alzueta “Martintxo”, de los dibujos. Acompaña a este álbum una unidad didáctica sobre el tema. La revista de cómic “Xabiroi” llevara a Durango “Azken garaipena”, una historia de género negro pero de historia-ficción, realizada por Iban Zaldúa y Julen Ribas. Ikastolen Elkarteak, por último, presentará dos nuevos juegos interactivos: “Lehenengo ordenagailua” y “Animalien alfabetoa”, que seguro enganchará a los más pequeños y, posiblemente, también a algún adulto.

### DURANGO ET SON LOT DE SURPRISES

La Foire de Durango sera pleine de nouveautés. Le produit phare de Ikastolen Elkarteak sera cette année une BD de quasiment cent pages (“1512. Nafarroa amets urratua”) relatant la conquête de la Navarre. Les protagonistes de l’histoire sont deux frères de San Francisco de Xabier, Miguel de Jaso y Azpilicueta et Joan Azpilicueta qui furent témoins et prirent part aux événements. L’historien Joseba Asirón est le

scénariste et Martín Alzueta “Martintxo” le dessinateur. Cet album comprend aussi une partie didactique sur le thème. Par ailleurs, la revue “Xabiroi” proposera à Durango “Azken garaipena”, une fiction noire réalisée par Iban Zaldúa et Julen Ribas. Enfin, de nouveaux jeux interactifs seront présentés: “Lehenengo ordenagailua” et “Animalien alfabetoa”.

elkar  
ARE-  
TOA

www.elkar.com



Gozatu elkar liburu dendetako kutur ekitaldiekin  
Etorri elkar aretora!



# “1512. Nafarroa amets urratua”

## Konkistaren historia komikian

**N**afarroako historiarekin lotura duten bi produktu eramango ditu Ikaselkarrek (Ikastolen Elkartek eta Elkar argitaletxeak sortu duten enpresa berriak) Durangoko Azokara. Produktu nagusia Joseba Asironen gidioa eta Martin Alzueta “Martintxo” marrazkilariaren irudiak dituen komikia da. Joseba Asiron historiagilea da, Nabarraledko kidea eta San Fermin Ikastolako

irakaslea. Euskal historian eta, bereziki, Nafarroakoan aditua da eta konkistaren inguruan ikerketa ugari egin duena. *“Datorren urtean beteko dira 500 urte Nafarroako erresuma konkistatu zutela, eta gertakari hori ezagutarazteko Nabarraledko antolatuko dituen ekintzen artean unitate didaktiko bat prestatzeko proposamena egin zion Ikastolen Elkarteari. Horretan ari*

*ginela Nafarroako Unescok gai beraz komikia egiteko ekimena abian jarri zuen eta bi produktuak batzeko saioa egin dugu. Biak euskaraz eta gazteleraz aterako dira”*, kontatu zigan **J. Iñaki Etxezarretak**, Ikaselkarreko zuzendariak. Komikia argitara ahal izateko lau fundazio dira babesleak: Colegio de Navarra fundazioa, Elkar fundazioa, Sabino Arana fundazioa eta Erentzun

fundazioa. Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundu du, eta Noticias taldeak promozio berezia egin du urriko azken asteburuan eta azaroko lehen bi asteburutan, prezio berezian atalko komikia kaleratzeko. ●



## Joseba Asiron

“Gaiak testuliburuetan duen trataera aldatzea lortu behar dugu”

Xabierko San Frantziskoren bi anaia dira Joseba Asironen eta Martin Alzueta “Martintxo”k egin duten ia ehun orriko komikiaren protagonistak. Joseba Asironen ustez, aukera erabat justifikatua dago, Migel de Jaso y de Azpilikueta eta Joan de Azpilikueta (honek amaren abizena hartu zuen) konkistaren gertakari guztietan partaide eta lekuko izan zirelako.



Ez duzue, beraz, fikziozko protagonisten bila ibili beharrik izan. Anaia gaztea,

Azpilikueta kapitaina bezala ezagutua, da historia kontatzen duena, baina bi anaiak dira protagonistak, izan ere, *1512ko* inbasioan, urte horretan bertan erresuma berreskuratzeko egin zen saiakeran, *1516an* Pedro Mariskalak birkonkistatzeko egin zuen ahaleginean, *1521eko* Noaingo gatazkan eta *1522ko* Amaiurko gertakarietan partaide izan baitziren biak. Komikiak hiru zati ditu: lehenak, hitzaurre gisa, Nafarroako erresumara arteko historia laburtzen du irudietan; bigarrenak, epilogo batean geroztik erresumak izan duen Gamazadara arteko bilakaera agertzen du; eta

hirugarrenean, pertsonaia galeria batekin bukatzen dugu liburua.

Nafarroako erresumaren konkista giltzarria al da ondoko euskal historia ulertzeko? Erabateko garrantzia du, euskaldunok izan dugun estatu bakarraren suntsipena suposatu zuelako batik bat. Euskal Herriak gerora izan duen bilakaera ulertzeko ezinbestekoa da gertakari horiek ezagutzea. Euskal gatazka deitzen dugunaren sustraiak aurkitzeko ere beharrezkoa da gertakari horietaraino jotzea. Gainera, datorren urtean beteko dira bost mende konkista burutu zela, eta egungotasuna duen gaia ere bada. 1200ean eman zen erresumaren mendebaldeko zatiaren konkista eta 1512an Nafarroa Garaia. Geroko bilakabidean eman diren gatazka gehienek hortxe dute sustraia.

Datorren urteak balioko al du gertakari garrantzitsu honen berri gizarteratzeko?

Nik baietz uste dut. Dagoeneko lan handia egin dugu. Gaia gizarteratzeaz gainera, heziketaren arloa daukagu, eta datorren urtean gure seme-alaben testuliburuetan gai honek jasotzen duen trataera aldatzea lortu behar dugu. ●



BEHEAN JOSEBA ASIRON NAFARROA OINEZ EGUNEAN EGINDAKO ARGAZKIAN. GOIKOAN, ZURRIOLA IKASTOLAKO DBH 4. MAILAKO IKASLEAK. NAHUEL, PAUL, LIDE ETA ANE. ANTZERKIZALEAK DIRA; ETA IKASTOLA ALDIZKARIAK ESKERTU NAHI DIE ALDIZKARIAREN AZALA EGITEKO NAFARROAKO ERRESUMAK ANTZO III.A GARTZES NAGUSIAREN GARAIKO KORTEA HAIN ONGI ANTZEZTU ZIANAGATIKI.



araba:

# HIRU URTEAN ERAIKINA ERABERRITU DUTE

## Lautada ikastolak 0-1 urteko gela ireki du

Orain hiru urte, 2009an, mojen ikastetxea zena kooperatiba bilakatu eta ikastolen sarean integratzeko aukera ikusi zuen Aguraingo guraso talde batek. Guraso horiek eraikinaren itxura goitik behera aldatu dute. *“Herriko koadrila pare batek gure eskola ereduaren aldeko apustua egin, eta seme-alabak hemen matrikulatzea bakarrik falta zaigu proiektua sendotzeko”,* esan zigun Jabier Amescua lehendakariak.

**M**ojen ikastetxea izan zen garaiko ikasle ohiak Lautada ikastolara agiriaren baten bila etortzen direnean ez dute begiz ikusten dutena sinesten. Hiru urtean goitik behera aldatu dute, zinez aldatu ere. Beste ikastetxe bat dirudi orain, guztiz egokituta baitago. *“Teilatuan ukitu batzuk ematea falta zaigu. Beste guztia berritu dugu hemen: hodiak eta komunak aldatu ditugu, Interneten loturak sartu ditugu gela guztietara, kanpotik eta barrutik margotu dugu, musika eta psikomotrizitate gela berriak egin ditugu eta, garrantzi handikoa dena, 0-1 urtekoen gela zabaldu dugu aurten”,* hasi zen **Jabier Amescua**.

Eta hori guztia oso diru gutxirekin egitea lortu dute. *“Guraso talde indartsu bat dago hemen behar den guztietan lanerako prest dagoena.*

*Beti prest dauden gurasoak dira. Hauek dira benetan proiektua sinetsi eta bultzatzen dutenak. Gainera, sekula giroa jartzen dute; arkume txuletak erretzeko parrilla eta guzti etortzen dira”,* jarraitu zuen **Maite Ortega**, zuzendariak.

Eraikinaren itxura aldatzea lortu badute ere, egoerak gogorra izaten jarraitzen du. *“Arrazoi ezberdinak tarteko, herriko ikastola publikatu egin zen 93an, baina D ereduan lan egiten jarraitzen du. Ikastetxe hau ikastola bihurtu eta herria erabat euskalduntzeko aukera ikusi genuen. Gainera, eredu ezberdin bat eskaintzen dugu: kooperatiba gara, kudeaketa gurasoen partaidetzan oinarritzen dugu, Euskal Herriko Ikastolak taldean gaude eta proiektuetan parte hartzen dugu”* erantsi zuen Jabierrek.





## 0-1 URTEKOEN GELA

Proiektua sendotzeko ikusi duten biderik onena delakoan, 0-1 urteko gela zabaldu dute aurten. *“Joan den ikasturtean egin genituen obrak, ikuskaritzak bestela ez zigulako baimenik ematen. Gela egokitzeaz gainera, adin horretako gelak hornitzeko dirutza behar da. Gastu handiko apustua izan da, baina ez genuen beste biderik eta 13 umerekin hasi gara lanean”,* esan zigun Maite Ortegak.

Herrian partzuergoaren haurtzaindegia dute, baina erabat beteta dabilta. *“Alde horretatik herriari zerbitzu bat eskaini diogu 0-1 gela zabalitzearekin. Aurten, dena den, ume batzuk kanpoan utzi behar izan ditugu, eta datorren urterako gela handitu eta bi unitate zabalduko ditugu, batean urtebetekoak eta bestean txikiagoak sartzeko.*



*Gela hauetara datozen ume gehienak ikastolan jarraitzea gustatuko litzaiguke”,* erantsi zuen zuzendariak.

Gaur 247 ikasle dituzte Lautada Ikastolan. Lakuak bultzatu duen hiru hizkuntzako ereduari sartu dira laugarren mailan, eta aldi berean Eleanitz proiektua abiatu dute HHn.

### HIRU URTE LANEAN

2008ko abenduan erosi zuten gurasoek eraikina, baina Eusko Jaurlaritzaren inbertsio planean sartzetik ez zuten izan, eta plangintza lau urtez

behingoa denez, datorren urtearen zain daude dirulaguntzak eskuratzeko. Bien bitartean Elkartasun Kutxaren laguntza izan dute. Iaz Araba Euskaraz jaia ere antolatu zuten.

Ikastolan egindako berrikuntza guztiak oso aurrekontu urriarekin burutu dituzte. Musika gela prestatzeko, esate baterako, integrazio enpresa batekin harremanetan jarri ginen eta praktiketan zeuden ikasleek berritu zuten gela. *“Arduradunari esan genion berriro praktikak egiteko leku bat behar bazuten, gu beti prest egongo ginela”,*

gogoratu zuen Maitek. Hirugarren solairuko musika gela ere egokitu dute; horrez gainera, psikomotritate gela zabaldu dute beheko solairuan. Joan den ikasturteko Aste Santu aurreko astean ostiral arratsaldea hartu zuten gelen banaketa berria egiteko; *“HH eta momentu horretan ireki berria zen psikomotritate gela, beheko solairuan; LH, 1. solairuan eta DBH, 2. solairuan; 3. solairuan, musika gela berria, liburutegia, laborategia eta egokitu dugun teknologia tailerra. Egun horretan guraso, irakasle, eta ikasle taldeak jarri genituen aldaketa egiten. Mahaiaik, armairuak eta apalak hartu, eta batetik bestera aldatu genituen alde aurretik egindako plangintza baten arabera. Sekulako mobilizazioa izan zen”,* jarraitu zuen ilusioz Maitek. Psikomotritate gela HHkoek erabiltzen dute. LHkoei eta DBHkoei Gorputz Hezkuntza emateko jolaslekua eta frontoia baliatzen dituzte. *“Gure hurrengo lana estalita dugun frontoian kirolegia*

*antolatzea izango da. Hotz egiten duen egunetan herriko kirolegira joan behar izaten dute. Ez dago urruti, baina premiazkoa ikusten dugu ikastolan bertan instalazio hori izatea”,* esan zuen Jabier Amescuaek. Lehendakariak itxaropen handia du sartzean ari diren gurasoengan. *“Mojen ikastetxea zen garaiko guraso dezentek dago ikastolaren martxan inplikatzeko ez dena. Orain sartzeko direnek, aldiz, badakite kooperatiba batera datozela eta beste jarrerak bat dute”,* esan zuen. •

**“Eredu ezberdin bat eskaintzen dugu: kooperatiba gara, kudeaketa gurasoen partaidetzan oinarritzen dugu, Euskal Herriko Ikastolak taldean gaude eta proiektuetan parte hartzen dugu”.**

## LAUTADA ESTRENA UN AULA DE 0-1

Lautada Ikastola de Agurain, que se creó hace tres años a raíz de la compra por parte de los padres de un colegio de monjas que estaba a punto de cerrarse, ha estrenado un aula de 0-1 con 14 alumnos y está pensando en duplicar ese espacio para el próximo curso, para que puedan entrar dos unidades. Esta iniciativa podría servir para apuntalar el proyecto. El grupo de padres más comprometido con el proyecto ha realizado un lifting completo al edificio a lo largo de estos dos cursos. La ilusión por la ikastola sigue viva.

## LAUTADA OUVRE UNE CLASSE DE 0-1 AN

L'ikastola d'Agurain, créée il y a trois ans suite à l'achat par les parents, pour partie, d'un monastère qui devait fermer, ouvre une classe de 0-1 an avec 14 élèves. L'année prochaine une autre classe devrait également voir le jour. Un groupe de parents engagés dans le projet ont réalisé un lifting complet de l'édifice.

IKASTOLAKO ATARIAN JABIER AMESCUA LEHENDAKARIA ETA MAITE ORTEGA ZUZENDARIA IKASLEZ INGURATURIK. LAUTADA IKASTOLAK SEKULAKO ALDAKETA EMAN DU AZKEN BI IKASTURTE HAUTAN EGINDAKO BERRIKUNTZEI BIDE ETA JARRITAKO ILLUSIOARI ESKER; SEKULAKOAK, ZINEZ IKUSGARRIA.







# ASTI LEKU, EZKERRALDEAN EUSKARAREN ALDE LANEAN ARI DEN ERRALDOIA

## Bi urteko lau gela ditu martxan

Ezkerraldean euskararen alde lanean ari den erakundeetako bat da Asti Leku 1.625 ikaslerekin. Eraikin nagusitik 500 metrora, bi urtekoen lau gela zabaldu zituen iaz eta eskualde osoko haurrak ari dira etortzen bertara. Batxilergoa bukatzen duten ikasleentzat ere Lanbide Heziketa euskaraz egiteko aukera zabaldu zuen Bihotz Gaztea eta Elai Alai elkarteekin batera: Ibar Ezkerra. Ikastola hau Bilbon bukatzen ari diren Harrobia eraikinean integratuko da.

**L**au urtekoen gela batean sartu eta andereñoa Kattalinen historia kontatzen ari da. Kattalin Serantes mendian bizi den iratxoa da, eta noizean behin ikastolara jaisten da umeak euskaraz hitz egiten ari ote diren begiratzera. Kattalinen panpinatxo bat du andereñoak, eta euskaraz egiten duen umearen mantalaren poltsikoetan sartzen du goizean ikastola hasi aurretik. *“Panpina aurkitzen duen haurrak sekulako poza hartzen du, noski. Denen poltsikoetatik pasatzen denean Kattalinekin gutun bat bidaltzen die beren etxera gonbidatuz.*

*Serantesera joatea konplikatu da, eta autobusean Erandioko parke batera eramaten ditugu umeak Serantesera goazelakoan. Hara iritsi eta Kattalin aurkitzen dute zuhaitz baten atzean; ikustekoak izaten dira eszenak, bai horixe!”*, hasi zitzaigun kontatzen **Josune Lopez de Vergara**, Asti Lekuko HHko arduraduna.

Euskararen lanketa eta erabilera da Asti Lekuko kezka nagusienetako bat, eta garrantzia berezia ematen diote Euskaraz Bizi proiektuari. DBHn eta Batxilergoan, esate baterako, “Emaioak” izeneko ikasle talde bat arduratzen

da proiektuaz, eta gurasoak ere inplikatzeko dituzte. Euskarazko jokoak erabiltzen erakusteko ikastaroak eskaini dizkiete. Hori horrela, bi urteko gelak irekitzeak ere euskara lantzen hasteko aukerak handitzen ditu.

### PANDO KALEAN LAU GELA

Hemezortzi ikasleko bi urteko lau gela argitsu eta eder zabaldu zituzten iaz Ballonti merkataritza gunearen ondoan, Pando kaleko bloke baten etxapean. *“Orain lau urte hasi ginen ikastolan bertan gela bakar batekin, eta jauzi hori ematea erabaki zen iaz. Jatorriaren,*



*generoaren eta adinaren arabera egin ditugu lau talde horiek. Umeak uzteko ‘Egun on Asti Leku’ deitzen diogun harrera zerbitzu bat*

*ere jarri dugu 8etan zabalitzen duguna, nahiz eta klaseak 9.30ean hasten diren”, jarraitu zuen Vergarak.*



Josune ikastolako ikasle ohia da, eta irakasle ikasketak bukatu orduko hasi zen lanean Asti Lekuk Portugaleten zuen Haur Hezkuntzako egoitzan. **“Orduan Asti Lekuk Portugaleten, Sestaon eta Barakaldon zituen HHko egoitza txikiak, gero eraikin nagusian bildu baziren ere. Dena den, gure 2 urteko geletara Ezkerralde osotik jarraitzen dute etortzen ikasleek”,** gogoratu zuen.

Josune Asti Lekuko ikasle ohi petoa da. Portugaletekoa da bera. Aitari Celes Vergara deitzen zioten edo Vergara txistularia, herriko txistulari titulara izan baitzen, oso ezagun eta maitatua Portugaleten. Zazpi seme-alabek txistua jotzen ikasi zuten, eta ikastolara etorri ziren. Orain Josune ikastolan txikiaren arduradun dago.

Ea bi urteko gurasoen artean euskararen presentzia gehitu den sumatzen ote duen galdetu genion. **“Bai, bai. Gero eta guraso euskaldun gehiago sumatzen dira umea gelara ekartzen dutenen artean, baina euskaraz erraz hitz egiten duten umeak ez dira asko izaten. Hori bai, gero eta gehiago dira gurasoen artean ikasle ohiak, eta gero eta gehiago dira euskaldun zaharrak ere, umetatik**



**euskaraz hitz egin dutenak, alegia. Eta irakasleen artean ere, HHn behintzat, ikasle ohiak ugari gara, ni neu barne. Hala ere, giroak ez du laguntzen eta hemen kostatzen da umeak euskaraz hitz egiten ipintzea. Bi urteko gelak zabaltzeak mesede egin digu, 3 urterekin egoitza nagusira datozenerako bide erdia eginga dute”,** esan zigun Josunek.

Hiru urteko gelan Urtxintxa proiektuarekin

hasten dira lanean eta bi urteko gelarako material propioa lantzen ari dira Urtxintxaren irizpideei jarraiki.

**LAU LERROKO IKASTOLA**

Asti Leku lau lerroko ikastola bat da, 1.625 ikasle ditu, eta handitasun gorri bi aurpegi dituela harrebi du **Juan Karlos Naberan** zuzendariak: **“Txikiak eskaini ezin dituzten zerbitzuak eman ditzakegu, baina aldi berean antolaketa aldetik izugarri zorrotzu behar dira gauzak”.**

Batxilergoa egitera Santurtziko Bihotz Gazteatik eta Trapagatik etortzen dira, Asti Leku Ezkerralde osoko proiektua delako; horrez gainera, Lanbide Heziketa ematen duen Ibar Ezkerra ikastolaren sortzaile ere bada. Ibar Ezkerra Bilboko Harrobia proiektu berriaren integratuko da. Eraikina jasota dago, eta



ARRATE URIBARRI, NAGORE GONZALEZ, IRATXE PERNIA ETA JANIRE CANTERO DIRA BI URTEKO GELETAKO IRAKASLEAK, ETA LAGUNTZAILEAK AINTZANE ZORROZA ETA IRUNE AREVALILLO.



datorren urtera bitartean erabakiko dira bertan emango diren edukiak. **“Eraikinak sarrera bat Bilbo Zaharretik dauka eta beste bat Miribillatik. Hiriaien bihotzean dagoen ikastola izaki, sekulako garrantzia izan dezake urte gutxi barru”,** esan zuen **Txus Bilbao**, Ruper Ormazza Asti Lekuko gerente historikoaren ordezkotzaile egokitu zaionak.

# Koordinatzaile bat trukeak eta ikasle ohien zerbitzua koordinatzeko

Zuriñe Arruza da ikasleen trukeak eta ikasle ohien zerbitzuak Asti Lekun koordinatzen dituena. **“Bi esparrutan egiten dut lan. Alde batetik ikasle ohiekin harremanak mantendu, ikasketen jarraipen gutxieneko bat egin eta zerbitzuak eskaintzen saiatzen gara. Zein diren zerbitzu horiek? Ordezkapenak egiteko, klase partikularrik emateko edo begiraleak behar ditugunean begirale lana egiteko, lehen aukera euren eskaintzen saiatzen gara. Eta, bestalde, ikastolak atzerriko ikasketxeekin egiten dituen ekintza guztiak koordinatzen ditut”,** esan zigun. • Orain dela 22 urte hasi ziren Asti Lekuko Ingeles Departamentukoak AEBko ikasketxeekin trukeak egiten. Juan Karlos Naberan zuzendariak gogoan du oraindik 2001eko irailaren 11an atentatuak eman zirenean gurasoek zer nolako sustoa hartu zuten, ikasle talde handi bat baitzuten AEBn. Orduan erabaki zuten esperientzia bertan utzi eta Europako herrialdeekin trukeak egiten hasia. • **“Hainbeste urte arlo honetan lan egiten aritu ondoren atzerriko ikasketxeetatik gonbidapen ezberdinak jaso, eta ingelesa lantzeko trukeak antolatzen ditugu. Iaz, gainera, Comenius proiektua ere jarri genuen martxan Europako sei herrialdeetako ikasketxeekin (Finlandia, Norvegia, Herbehereak, Italia, Frantzia eta Asti Leku) itsasoaren inguruan lan egiteko. Bi urteko programa hau DBH3ko ikasleekin abiatu genuen. Programa honek ere talde txiki batzuen trukeak egitera behartu gaitu. Lehiaketa bidez aukeratzeko taldeak eta gela osoaren ordezkari moduan joaten dira egindako lanaren berri ematera. Bidaia horietarako behar duten informazioa eta prestakuntza ematen diet ikasleei, eta logistikaz arduratzen naiz”,** esan zigun Zuriñe. • Batxilergoko lehen mailan frantsesa ikasten ari diren ikasleak urtero joaten dira Parisera astebete pasatzera. Hiru egunez joaten dira Iparraldera DBH3n frantsesa ikasten ari direnak hizkuntza hori eta euskara aldi berean lantzeko.

**“Emaioi” izeneko ikasle talde bat arduratzen da proiektuaz, eta gurasoak ere inplikatzeko dituzte. Euskarazko jokoak erabiltzen erakusteko ikastaroak eskaini dizkiete.**

**UNA IKASTOLA DE EZKERRALDEA**

Asti Leku es una ikastola con origen y vocación comarcal. Sus alumnos –los de antes y los de ahora- forman grupos de amigos-as euskaldunes de toda la comarca de Ezkerraldea. Acoge en sus cursos de Bachillerato a los alumnos provenientes de otras ikastolas como Bihotz Gaztea de Santurtzi y también frecuentemente de la ikastola Itxaropena de Trapagaran y oferta ciclos de FP en Ibar Ezkerra, un centro que

se integrará en el proyecto Harrobia, de reciente constitución, y que se está poniendo en marcha durante en 2011-2012. El pasado curso Asti Leku abrió a 500 metros de la ikastola cuatro aulas de 2 años para atender a 72 alumnos. La ikastola tiene en total 1.625 alumnos. Hablamos con el director y el gerente de la ikastola y con Josune Lopez de Vergara, la responsable de Educación Infantil.

**UNE IKASTOLA D'EZKERRALDEA**

Asti Leku est une ikastola à vocation “territoriale”. Ses élèves -anciens et actuels- sont des groupes d'amis euskaldun de tout le territoire d'Ezkerraldea. Elle accueille en Terminale des élèves venant d'autres ikastola comme Bihotz Gaztea de Santurtzi ou Itxaropena de Trapagaran et propose une branche formation Professionnelle à Ibar Ezkerra, un

centre qui sera intégré au projet Harrobia mis en marche en 2011-2012. L'année dernière Asti Leku a ouvert à 500 mètres de l'ikastola quatre salles de classe pour les 2 ans accueillant 72 élèves. L'ikastola compte 1.625 élèves.



gi puzkoa:



Ikastolen Elkarteko joan den ikasturteko zuzendarien mintegian aurkeztu zuen proiektua Nagore Amondarain Aisialdiko arduradunak, eta hizlarien mahaitik behera jaitsi orduko *“nik talde bat osatuko dizut”*, esan zion Ana Monjek, Tolosako Lanbide Heziketako Inmakulada ikastolako zuzendariak. Handik hiru astera HHko teknikari eta Gizarte Integrazioarako zikloetan matrikulatu nahi zutenen artean 19 ikasleko taldea osatua zuen.

Proiektua aurkeztu eta pare bat astera Armando Velezek, Lazkaoko San Benito Ikastolako zuzendariak, deitu zion Nagoreri haiek ere interesatuta zeudela jakinarazteko. Joan den udan bertan ikastaro trinko bana eratu ziren Lazkaon eta Tolosan; horrez gainera, ikasturte barruko ikastaroa ematen ari dira Inmakuladan.

Lazkaoko San Benitok badu tradizioa udalekuak antolatzen. Uztailean, esate baterako, ingeles udalekuak egiten dituzte Beiren eta Lizarran. Ingeles klaseak eta aisialdiko ekintzak uztartzen dituzte. Orain 20 urte hasi ziren ekintza horrekin, eta orduan ikasle gisa joaten zirenak gaur begirale dira. *“Udaleku horietan lan egiteko ingeleseko titulazioren bat eskatzen genuen, ‘First’ ziurtagiria gutxienez, eta begirale titulua ere beharrezkoa zela ikusten genuen. Horretarako baliatu*

## AISIALDIKO HEZITZAILEEN IKASTAROAK LAZKAON ETA TOLOSAN

### Begirale sare bat osatuko du Ikastolen Elkarteak

Azken urteotan aisialdi taldeek Bizkaian egindako bideari jarraiki, Aisialdiko Hezitzaileak prestatzeko ikastaro trinkoak antolatu zituzten udan Lazkaon eta Tolosan; horrez gainera, ikasturte barruan beste ikastaro bat antolatu du Inmakulada ikastolak. Ikastolen Elkarteko Aisiola begirale eskola da ekimenaren atzean dagoena. Gipuzkoako ikastoletan sendotuko dute proiektua, ondoren Euskal Herri osora zabaltzeko.





“Orain 20 urte hasi ziren ekintza horrekin, eta orduan ikasle gisa joaten zirenak gaur begirale dira”.

“Guk zikloarekin batera EGA eta ingeles klaseak eskaintzen genizkien; orain aisialdiko hezitzaile titulua egiteko aukera ere eskaintzen diegu”.

NAGORE AMONDARAIN, XEBER MAIZA, ANA MONGE ETA IRAULTZA URRUTIA INMAKULADA IKASTOLAKO ATARIAN.

ASIALDIKO HEZITZAILEA IZATEKO IZENA EMAN DUTENAK HHKO TEKNIKARI EDO GIZARTE INTEGRAZIORAKO ZIKLOA EGITEN ARI DIRENAK DIRA GEHIENBAT. GUK ZIKLOAREKIN BATERA EGA ETA INGELES KLASEAK ESKANTZEN GENIZKIEN; ORAIN AISIALDIKO HEZITZAILE TITULUA EGITEKO AUKERA ERE ESKANTZEN DIEGU. UDAN LAN EGITEN HASTEKO HEZIKETA OSAGARRIA DA BERENTZAT.

genuen joan den udan Ikastolen Elkartearen aukera eta sekulako arrakasta izan zuen. 18 urte beteta dituzten ikasleentzat lan egiteko aukera ere bada”, esan zuen **Xeber Maiza** San Benitoko irakasleak.

Tolosako Inmakuladako kasua ezberdina da, Ana Monjek agertu zuenez: “Aisialdiko hezitzaile izateko izena eman dutenak HHko teknikari edo Gizarte Integratorako zikloa egiten ari direnak dira gehienbat. Lehen Donostiara joaten ziren titulu horren bila, eta Nagoreri entzun nionean argia piztu zitzaidan. Guk zikloarekin batera EGA eta ingeles klaseak eskaintzen genizkien; orain aisialdiko

hezitzaile titulua egiteko aukera ere eskaintzen diegu. Astean arratsalde bat ematen dute horretan. Udan lan egiten hasteko heziketa osagarria da berentzat”.

Ikastaroak aktiboak dira, oso dinamikoak. “Guk ikastola bakoitzaren egoerara egokitu nahi ditugu ikastaroak. Batzuek asteburuetan nahiago dute eta beste batzuek aste barruan. Horiez gainera, udako ikastaro trinkoak egiten jarraituko dugu. Berrehun orduko ikastaroa da. Talde dinamika, psikologia ebolutiboa, talde pedagogia, sormena...; gaika ematen ditugu eduki teorikoak. Ondoren 150 orduko praktikak egin eta

memoria bat idatzi behar izaten dute”, esan zuen **Iraultza Urrutia** Aisiola Begirale Eskolako arduradunak.

Lantzen dituzten gaien zerrenda horretan leku

berezia egiten diote euskararen sentsibilizaziori eta ikastolen izaerari. “Gure helburua, ikastolara edo eskualdeko ikastaroak antolatuz, aisialdiko hezitzaile sare propio bat sortzea da. Ezinbestekoa da horiek euskararekiko eta

ikastolekiko atxikimendu zein konpromiso maila altua izatea”, erantsi zuen **Nagore Amondarainek**.

Praktikak egiteko orduan udalekuak erabiliko dituzte gehienek, baina

badituzte aukera gehiago ere. Tolosan joan den udan ikastaro trinkoa egin zutenek Seaskak Gabonetan Baionan antolatu nahi duen euskal parkean lan egingo dute. •



## UNA RED PROPIA DE MONITORES

Ikastolen Elkartea ha relanzado la idea de la escuela de monitores que durante años promovió BIE con el nombre de Aisiola. A pocas horas de presentar el proyecto en el seminario de de directores el pasado mes de mayo por parte de la responsable de tiempo libre Nagore Amondarain, la directora de FP de Inmaculada, de Tolosa, le comunicó que se comprometía a formar un grupo y a

las dos semanas le llamaba el director de San Benito de Lazkao con la misma propuesta. El proyecto está ya en marcha y su objetivo es formar una red propia de educadores de tiempo libre que respnson a las necesidades de las ikastola.

## UN RÉSEAU INTERNE D'ENSEIGNANTS

Ikastolen Elkartea a relancé l'idée d'une école d'enseignants longtemps promue par BIE sous le nom de Aisiola. Au moment où la responsable temps libre Nagore Amondarain devait présenter le projet au séminaire des directeurs de mai dernier, la directrice de la FP de Inmaculada (Tolosa) a fait savoir qu'elle s'engageait à constituer un groupe et deux

semaines après le directeur de San Benito de Lazkao faisait la même proposition. Le projet est en marche, l'objectif étant de former un réseau interne d'éducateurs temps libre pour répondre aux besoins des ikastola.



**GARBERA  
ARRASATE**



En los artículos señalizados



i parral dea:



## LUR EREMU BATEN ZAIN HENDAIAN

### Agindutako ikastola berria atzeratzen ari delako kezkaturik daude gurasoak

2014rako ikastola berria egina egongo zela esan zuten Hendaiako auzapezak orain bizpahiru urte. Hala izatekotan, lehen harria jartzeko garaia iritsi da, baina Herriko Etxea luzamenduak ematen ari da. Gurasoak oraingo ikasleen kopurua etorkizunera begira nola handitzen doan kontutan hartuz, epekin kezkatuak daude. Iadanik, mobilizazio ugari izan dira proiektu honen inguruan eta erne jarraitu beharko dute.

**H**arremán berezia izan du Hendaiako ikastolak Herriko Etxearekin. Azken bi auzapezak ikastolako guraso eta artezkari kontseilu kideak izan dira. Orain 40 urte sortu zen ikastola, baina gaur duen egoitzara, Irandatzen, orain 17 urte, 1994an etorri

ziren, Raphaël Lassalette auzapeza zela. "Udalak egin zuen eraikin hau eta geroztik Udalak bere gain hartzen du mantenua eta garbiketa. Eraikina jaso zutelarik, 90 umerentzako lekua kalkulatu zuten eta ez zela inoiz beteko uste zuten. Gaur 222 ikasle

ditugu. Horrek esan nahi du gela berriak erantsiz joan garela. Ikastolak ohituta gaude egoera ezberdinetara egokitzen, baina ezin dugu horrela jarraitu. LHko hirugarren zikloa Pausura eraman genuen, baina oso baldintza txarretan daude han. Ezinbestekoa da

eraikin barri bat egitea", hasi zitzaigun Peio Urriza ikastolako zuzendaria.

#### AUZAPEZAREN HITZA

Peiok gogoratu digunez, azken hiruzpalau urteotan Udalarekin irtenbideak aztertzen aritu dira. Aurreko alkateak, Kotte Ecenarrok,

ikastola berria egiteko 5.000 metro koadroko lur eremu bat agindu zien Abadia aldean. Lekua urruti samar zegoenez, gurasoek oraingo eraikinari eutsi eta Abadia aldean bigarren ikastola bat eraikitzea erabaki zuten eztabaida luze baten buruan. Bi



ikastola berezi egingo zituzten, bai antolamendu aldetik eta bai juridikoki. "Hauteskundeak iritsi ziren, udal aldaketa etorri zen eta eremu hura eskola publiko berri bat egiteko baliatu dute. Ecenarro ikastolako diruzaina izana zen. Auzapez berria ere, Battite Salaberry, ikastolako lehendakari izandakoa da" jarraitu zuen kontatzen Peio Urrizak.

"Guk harreman onak ditugu biekin, Hendaiaiko haurrak murgiltze sisteman inskribatzen jarraitzeko beharrak adostasun politikora eraman du, oraino errezeloak izan arren. Egun proposamen berri bat egin digu: 3.500 metroko koadro dituen lur eremu bat emango digula esan zigun ikastolatik 500 metrotara, Mr. Bricolage dendaren atzean." esaten digu Sandra Dachary, ikastolako lehendakariak.

Alkatearekin adostu bezala, ikastolako Administrazio Kontseiluan eta Biltzar Nagusian gaia eztabaidatu da eta Hendaian, ikastola bat izatea proposatuko da, Haur Hezkuntza batekin eta Lehen Hezkuntza batekin; bata oraingo Irandatzeko eraikinean, eta bestea lur eremu berrian. Pausuko eskola zaharrea dauden hiru gelak denboraldiko irtenbide bat besterik ez da, batetik gelak ez daudelako egokituta baina batez ere ez delako Hendaiaiko Herriko Etxearena, Urruñakoarena baizik. "Gurasoak adi egongo dira, eta egoeraren larrialdia gogoratzeko behar diren ekintza guztiak martxan jarriko dituzte" jarraitzen du Sandra.

Hendaiaiko ikastolan 2 urterekin hasten dira. Herrian bi haurtzaindegi dira, bata frantsesa eta elebiduna bestea. Guraso



GAUR 222 IKASLE DITU HENDAIKO "GURE IKASTOLAK". IKASTOLA POLITA DA, BAINA TXIKIEGIA. IKASLEAK EZIN SARTURIK IRTENBIDEA BEHAR DUTE.

talde batek (Peio ere taldean dago) Txiki Txoko elkarte sortu zuen euskarazko haurtzaindegi bat bultzatzeko. Lanak aurreratuak dituzte eta datorren ikasturtean zabaltzekotan dira. •

"Eraikina jaso zutelarik, 90 umerentzako lekua kalkulatu zuten eta ez zela inoiz beteko uste zuten. Gaur 222 ikasle ditugu baina ezin dugu horrela jarraitu".

"Egun proposamen berri bat egin digu: 3.500 metroko koadro dituen lur eremu bat emango digula esan zigun ikastolatik 500 metrotara".



## Hizkuntzen aniztasuna

HENDAIKO IKASTOLAK BEREZITASUN BATZUK ESKAINTZEN DITU, Iparraldean dituen egundoko ikasle kopurua, Herriko Etxearekin dituen harremanak, baina bere kokapen geografikoa ere adierazteko modukoa da. Eta horregatik Hendaia, hizkuntzen aldetik egoera berezi bat bizi du, ikastolako haurrek bezala beste eskoletakoek ere. Ondorioz, kontutan izanik hizkuntzaren mailen desberdintasuna, frantsesa ikasteko metodo jakin bat abian jarri dute. Elebitasunaren helburua mantentzen da, baina kolegioan (Bigarren Hezkuntzan) jarritako epeetan eta Hendaiaiko kasuan, Ziburuko kolegioaren eta ikastolaren arteko elkarlanarekin. • "Euskaraz Bizi, gure ikastolako batzordeak, inkesta bat egin du gurasoen artean beraiek erabiltzen duten hizkuntza ikertzeko, eta euskara guzien hizkuntza bihur dadin proposamenak aztertzeko, oraindik gure hizkuntza menperatzen ez dutenei ikastea errazteko. Hirueletasuna zailtasun bezala bizi daiteke, baina batez ere aberastasun bezala. Guri dagokigu aukera onak hartzea", amaitzen du ikastolako lehendakariak, Sandra Dachary. •



## LOS PADRES DE HENDAIA SE IMPACIENTAN

La ikastola de Hendaia ha tenido una relación privilegiada con el Ayuntamiento, puesto que los dos últimos alcaldes han sido con anterioridad padres y miembros del equipo directivo de la ikastola. En 1994 se construyó el actual edificio, bajo el mandato de R.Lassalette. Pero éste ha quedado pequeño y llevan años esperando la cesión de un solar para levantar un nuevo edificio. Los padres se impacientan y han decidido que ha llegado la hora de aumentar la movilización, si no avanza el proyecto de una nueva ikastola para 2014, prometido por el actual alcalde, B.Sallaberry.



## LES PARENTS D'HENDAIA IMPATIENS

L'ikastola d'Hendaia a tissé des liens privilégiés avec la mairie, les deux derniers maires ayant été parents et membres du Bureau de l'ikastola dans le passé. L'actuel bâtiment a été construit en 1994 sous le mandat du maire Raphaël Lassalette. Mais ce bâtiment est devenu trop exigu et cela fait des années que l'ikastola attend la cession d'un terrain pour construire un nouvel édifice. Les parents perdent patience et ils ont décidé de mettre d'avantage de pression.



nafarroa:



# IKASTURTEA FESTA BATEKIN HASI ZUTEN BERAN

## Labiaga, handien zerbitzu guztiak dituen ikastola txikia

Ikastola txikia da, baina Ikastolen Elkartearen proiektu guztietan sartuta dago eta ikastola handien zerbitzuak ditu. “Gure ikastolan mahai zaharrak egon daitezke, baina pedagogiari ematen diogu lehentasuna; horretan punta-puntan gaude”, esan zigun Pakea Oiartzabal zuzendariak. Ikasturte berria indarrez hasteko festa handia ospatu zuten irailaren 17an: II. Lore Jokoak. Badirudi urterik txarrenak atzean utzi dituztela eta matrikulazioa berriro gorantz doala Berako ikastolan; horren aldeko lan handia egiten ari dira gurasoak zein irakasleak.

**175** ikasle ditu gaur Labiaga ikastolak. DBH osoa ematen zuenean 200 inguru ikaslerekin ibili zen. Urteak eman dituzte Nafar Gobernuarekin auzitan, Hezkuntza legea aldatu eta bigarren zikloa emateko baimena ukatu baitzuten. Auzi guztiak galdu zituzten. Hiru urtetik 14ra bitarteko ikasleak dituzte egun.

“Guraso eta irakasleen inplikazioa berreskuratu eta kooperatiba izpiritua indartzea erabaki genuen, eta burua altxatu genuen berriro”, hasi zen Pakea Oiartzabal ikastolako zuzendaria herriko pilotalekuan bazkaria prestatzen ari zirenei laguntzen ari zen bitartean.

II. Lore Jokoak ospatu zituen Berako ikastolak irailaren 17an. Ekainean gero eta arazo gehiago omen zituzten Ikastolaren Eguna ospatzeko, eta ikasturte hasierara pasatzea erabaki zuten. “Ikasturte bukaeran ospakizun simple bat egiten dugu. Honetan ikasleak/gure seme-alabak dira protagonistak. Izan ere, ikasturtean zehar egindako lanen erakustokia bihurtzen dira ikastola eta herriko kultur etxea. Gurasoak gonbidatu eta ondoren, txokolate jana antolatzen da. Hala ere, festa handia ikasturte hasieran egiten hasi ginen aurreko ikasturtean. Aurtun herriko gaztetxearekin

batera antolatu dugu egitaraua. Ikasle ohiak dira asko gaztetxean, eta gurekin kolaboratzen dute hainbat gauzatan. Ekimen/besta honekin ikastolak Berako herriari euskara eta euskal kulturaren zer eskaini baduela erakutsi nahi dio, eta horretarako herriko beste hainbat eragilerekin ari gara lanean. Beran ospatu zen orain urte batzuk Lore Jokoen mendeurrena ere, eta giro hura berreskuratu nahi genuke geure xumetasunean”, erantsi zuen Izaskun Abrial ikastolako lehendakariak.

Bazkaria, eguerdiko tenorean antolatutako toka txapelketa eta dantzaldia

izan ziren egun horretako ekitaldi jendetsuenak. Bazkaltzen, adibidez, 160 lagun bildu ziren eta arratsaldeko dantzaldian gehiago. Lesakako ikastolarekin harreman estuak dituzte, eta Sarakoarekin ere sendotu egin nahi dituzte. Lehen herri horretatik ikastolako arduradunak etorri ziren eta Saratik gaiteroak, herriko kaleak alaitzera.

### PEDAGOGIAN PUNTAN

Eraikin berrian HH eta LHko ikasleak dituzte, eta inoiz fraide eskola (bere garaian Maristas deiturikoa) izan zen eraikin zaharrean DBHko lehenengo zikloa.

“Ikastola txikia da, baina Ikastolen Elkartearen proiektu handi guztietan sartuta gaude: Hizkuntza Proiektua, Eleanitz, FIE (ingeleseko murgilketa), Xiba, Ikasys, ... Horrekin batera IKTak ere martxan ditugu. Diruz larri ibili arren, pedagogiari lehentasun osoa ematen diogu. Horretarako gurasoen eta irakasleen inplikazioa ezinbestekoa izan da. Herriko festetan, esate baterako, Ikastolaren ostatura irekitzen dugu eta guraso guztiak hartzen dute parte txandaka lanean”, jarraitu zuen Pakeak.

Guraso eskola dute, Euskara taldeak antolatzen ari dira, Ekonomia taldea indartu nahi dute.

GURASO ETA IRAKASLEEN INPLIKAZIOA BERRESKURATU ANTOLATU DUTE AURTEN LABIAGA IKASTOLAKIDEK II. LORE JOKOAK FESTA NON IKASLEKIN BATERA AUZOLANA BULTZATU BAITUTE ETA ELKARREKIN EGUN ZORAGARRIA PASATU ERE, ARGAZKIAK LEKUKO.





*“Auzolana zer den badakite gure gurasoek. Gelaka banatzen ditugu ardurak. Gaur bertan bazkaritarako mahaiak prestatu eta paella egiteko hiru gelatako gurasoek hartu dute ardura. Zikiroa erretzen ari diren gehienak ere gurasoak, bazkideak edo guraso ohiak dira, herriko auzoetan zikiroa erretzen aritzen diren batzuen laguntzarekin. Olentzeroren etorreraz beste gela batzuk arduratuko dira, eta inauteriez, berriz, beste batzuk. Ikastolako berritze lanak ere modu horretara egiten ditugu. Urte txarrak igaro genituen, baina berriro dinamika bat berreskuratzen ari gara”, jarraitu zuen Pakea Oartzabalek.*

II. Lore Jokoen egitarauaren barruan, gaztetxeko kideak eta ikastolako ikasle talde batzuek Bidasoa erreka izkinak garbitzen hasi ziren goizeko 11etan. Bidasoa ibaiaren historia asko daki Izaskun Abrilek (horretaz arduratzen den talde bateko kide da) eta xehetasun polit bat kontatu zigun. Erreka horri Baztan deritzo Oronozen Bidasoa izena hartzen duen arte. *“Gaztetxekoek urtean pare bat aldiz egiten dute lan hori, eta gure ikasleak ere kontzientziazteko proposatu ziguten”,* gogoratu zuen Izaskunek. Toka lehiaketa egin zuten pilotalekuan, kalejira ondoren Sarako dultzaina jotzaileekin, eta ondoren bazkaritara bildu ziren.

Herrian eragin nabarmena izan duen ikastola izan da Berakoa. Bertsolaritza ere lantzen dute gela barruan; ez alferrik, Julen Zelaietak daraman Berako bertso eskolan ikastolako ikasleak dira gehienak. Gure Txokoa elkarteko dantza taldea ere ikastolako dantza taldetik sortu zen, orain herriko ikasle guztiak badabiltza ere. Ikastolak bere mendi taldea du, Larun Ttiki, eta hilean bi irteera egiten dituzte inguruko bazterrak ezagutzera. Ekimen hau, guraso ohia, ikastolako sortzailetariko bat eta egungo ikastolako amatxi den Marijose Errandoneari zor diogu; izan ere, guraso berriei ibilbideak erakusten ari zaie. Erreleboa eman eta hartu!

*“Ikastola txikia izateak baditu bere alderdi onak ere; familia handi baten gisakoa gara. Hemeretzi irakasle gara bertan eta, ikastola handietan proiektuak orduak liberatuz garatzen badira ere, guk orduak sartuz garatzen ditugu”.* Inguruko ikastolekin eta bereziki Lesakakoarekin duten harremanaren ondorioa da aurtan bi ikastolek erosi duten furgoneta berria. *“DBH egitera Lesakako ikasleak ekartzen ditugu eta, herri honetan urrun samar dauden auzoak ditugunez, hango ikasleei ere zerbitzua eman nahi diegu”,* esan zuen Izaskunek. Pakea Oartzabal donostiarra da, Altzako,

baina 15 urtez ari da Labiagan lanean eta hirugarren urtea du zuzendari. Izaskunek bost urte daramatza guraso batzordean. Lehen urtean idazkari izan zen eta hirugarrena du lehendakari. *“Emakumeak gehiengo gara batzordean, 14 kideetatik 12”,* gogoratu zuen parrez lehendakariak.

**“Ekimen/besta honekin ikastolak Berako herriari euskara eta euskal kulturaren zer eskaini baduela erakutsi nahi dio”.**  
**“Gaztetxekoek urtean pare bat aldiz egiten dute lan hori, eta gure ikasleak ere kontzientziazteko proposatu ziguten”.**



### PARA EMPEZAR EL CURSO CON BUEN PIÉ

La ikastola Labiaga de Bera organizó a mediados de septiembre la segunda edición de Lore Jokoak, con la que abre el curso escolar. Con 175 alumnos en la actualidad, es una ikastola que ha logrado salir de la crisis que le enfrentó durante años al Gobierno de Nafarroa y alcanza durante los dos últimos años una matriculación pareja a la del centro público. Las dos claves de esta recuperación han sido la implicación de los profesores, que ofertan todos los grandes proyectos de Ikastolen Elkarte, y de los padres, tal como se vio en la celebración del Lore Jokoak.

### POUR COMMENCER DU BON PIED

L'ikastola Labiaga de Bera a entamé l'année scolaire avec l'organisation en septembre de la deuxième édition de Lore Jokoak. Avec 175 élèves, l'ikastola a su sortir de la relation conflictuelle qu'elle avait avec le Gouvernement de Navarre et depuis ces deux dernières années elle a autant d'élèves que l'école publique. Les deux clés de cette réussite ont été l'implication des enseignants, qui ont proposé tous les grands projets d'Ikastolen Elkarte, et celle des parents, comme on a pu le constater lors des Lore Jokoak.



IKASTOLEN

# JAIAK



## Mila esker beste behin

Bide luzea egin dugu elkarrekin. Beren laguntzari esker berrituko dugu aurten, esate baterako, Kanboko ikastola; Ondarroakoari, Laudiokoari eta Azpeitikoari edertua emango diegu, Tafallan eraikin berria jasoko da. Gure babesle eta laguntzaile diren enpresen bultzadarik gabe ezinezkoak izango ziren proiektu horiek. Babesleen artean Euskaltel, Kutxak eta Eitb ditugu. Laguntzaileen artean Eusko Label, Kaiku, Naturgas Energia, Eroski Fundazioa, Eroski Bidaiak, Baqué kafeak, Lumagorri, Norbega (Coca-Cola, Schuss eta Aquabona), Mahou, Elkar eta Askagintza. Lurralde ezberdinetako ikastola jakin batzuen ametsak eta ilusioak gauzatzeko bitartekoak jarriko dituzte aurrerantzean ere. Herri Urrats, Ibilaldia, Araba Euskaraz, Kilometroak ala Nafarroa Oinez jaiei lagunduz, gurasoek urte osoan egin duten lanari aterpea eskainiz jarraituko dute. Gero eta gehiago saiatzen dira, jolas eta produktu berrieekin agertzen zaizkigu ikastolen festetara. Guraso, familia, ikastola guztien izenean MILESKER guztiei! •

gure babesleei







Urteetan ondoan  
eskutik helduta,  
gure ametsa zure  
ametzat hartuta,  
esker ona besoak  
zuri zabalduta.  
Adiskidetasuna  
nahi dugu zainduta,  
zure laguntzaz lagun  
asko daukagu ta.

Juanjo Respaldiza  
Bertsolaria



## eta laguntzaileei



**Argia**



**EL DIARIO VASCO**



**EL CORREO**



**berria**







# ileak tente jarriko dizkizugu,

(esperimentuak zuzenean, museo elkarreragilea...).

# apur bat zorabiatu,

(simulagailuak, ilusio optikoak, txikiklik 4 urtetik 9 urtera...).



# izarrak ikusarazi,

(planetarium digitala, planetarium Txiki).

# eta berdatu egingo zaitugu...

("Gipuzkoa miniaturan" maketa-bilduma, picnic gunea, lorategiak eta gunee botanikoa...).



# Eta gainera... eureka! dibertigarria irudituko zaizu.

Zatoz ikastera eta Eureka zientzia-museoaz goatzera!

Egun ahaztezina igaroko duzue senitarteko eta lagunekin. **Museo bat baino askoz gehiago da:** jatetxe-kafetegia terrazarekin, haur-parkea eta aire zabaleko jokoak, eta aparkaleku zabala.

**Eureka! plan bikaina aurkitu duzu.**



Mikeletegi paseal., 45 (Miramon) - Donostia - gps: 43° 17' 30.55" - 1° 59' 4.59"  
www.eurekamuseoa.es - 943 012 478 - eureka@eurekamuseoa.es

